



Irailak 24, zapatua · Eskolondon 19:00etan

---

**Haizea Lorenzo. Sopranoa - Itxaso Sainz de la Maza. Pianoa**

MUSIKEAN · MUSIKA KLASIKOA EAN 2022

# EGITARAUA

**Ach ich fühl's - W. A. Mozart**

**Le Rossignol des lilas - R. Hahn**

**Gretchen am Spinnrade - F. Schubert**

**Villanelle - E. Dell'Acqua**

**Suburbis - F. Mompou:**

Gitanes

L'home de l'aristó

**De Cádiz a Gibraltar - J. García Leoz**

**Hiru euskal abesti (Orra or goiko, Itsasoa, Aldapeko) - R. M. Azkue**

**Ecconi in lieta vesta - V. Bellini**

**Variaciones op. 41 - N. Kapustin**

**Goizeko eguzki argiak - J. Guridi**

**Las hijas del Zebedeo - R. Chapí**

Pintura: erramun mendibelanda: "Atalaiaren Metafisika" 2022.

## **Haizea Lorenzo, sopranoa:**

11 urterekin hasi zen kantuan, Leioa Kantika Korala haur abesbatzan. Musika ikasketak Leioako Udal Kontserbatorioan txirulari gisa hasi ondoren, Garbiñe Abendano sopranoarekin batera musika heziketa osatu zuen eta Olatz Saituarekin Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatorioan ere aritu izan da. Horiez gain, Gizarte Hezkuntzako ikaslea da EHUn.

Koru jarduerari dagokionez, San Juan Bautista Abesbatza, Euskal Herriko Gazte Abesbatza eta Leioa Kantika Koralean parte hartu izan du. Azken honek Tolosako lehiaketan lehen saria jaso zuen 2021ean, Basilio Astulezen zuzendaritzapean. Bertan, solo ugari egin ditu eta hainbat operatan parte hartu du, hala nola, "Turandot", "Tosca", "Pagliacci" eta "Otello" operetan. Abeslari bakarlari gisa kantatu izan du Kantabriako Gazte Orkestrarekin batera.

Euskadiko musikari gazteen lehiaketako XV. Edizioan lehen postua lortu zuen kantatu modalitatean.

## **Itxaso Sainz de La Maza, pianoa:**

Goi Mailako eta Masterreko piano ikasketak Escola Superior de Música de Catalunya burutu zituen Vladislav Bronetzkirekin eta Hochschule Luzern Musik eskolan (Suitzan) Hiroko Sakagamiarekin. Era berean, Musikenen abeslariarekin aritzeko prestakuntza osatu zuen Maciej Pikulski maisuaren eskutik.

Sariak: Bartzelonako Palau de La Música Catalana ospatutako El Primer Palau lehiaketako Premi de la crítica saria (2019) edo Sintsev Saria (2014).

Erakundeekin kolaborazioak: Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilbao Sinfoniettarekin, Soinuaren Bidaia... Duela gutxi, Javier González Sarmiento konpositore donostiarraren Classic-Jazz Preludes grabatu zituen.

Gaur egun, Itxaso Musikeneko erreperatorioko irakaslea da, bere lan pedagogikoa eta kontzertu-jarduera uztartzen dituelarik.



[www.hea.eus](http://www.hea.eus)



EAKO UDALA  
BIZKAIA

[hea.eus/musikean-2022](http://hea.eus/musikean-2022)

[eakoudala.eus](http://eakoudala.eus)